

{ koaderno } Itzea Urkizu Arsuaga

Tranpa bat hondarretan

Hona ekartzen ditudan burutazioen irakurle nahiko fidela dut lagun bat. Tama-
lez, denbora da aurrez aurre ez dugula
elkar ikusten, baina nola-hala hitz egi-
ten dugun bakoitzean izaten du nire be-
rri. Akaso eta beharbada gardenegia nai-
zelako hemen; ia beti nire bizitzaz edo bertan
jazotzen diren kontutxo txikiez aritzen naizelako. Ino-
ri inoren bizitza partikularra axolako balitzaio bezala,
bizitzaz oro har aritzeko.

Esaldi horri puntua jarri, eta memoriak ezpainetara
ekarri dit, segituan, apalategian tolesturaz eta azpi-
marraz josita dudan eleberri bateko aipu eder bat, zei-
netan irakur daitekeen: “Nitaz idaztea da zutaz idazte-
ko nire modua” (Alaine Agirre, X hil da). Hori, edo
pertsonala, pribatua, bizitza, politikoak direla. Esan
modu poetikoagoan, esan
termino esplizitu edo, nahi
bada, objektiboagotan. Bai-
na ideia horren iturriari as-
paldiko hamarkadatan da-
rion emaritik edan gabe,
guztiz ezinezkoa litzateke
gaur, hemen, orain, emaku-
me izendatuok aldatzeko
eta lortzeko dugun guztiaz
hitz egin eta idatzi ahal iza-
te hutsa.

Hemezortzi urterekin bo-
to-papera hartu eta kutxan
sobrea estreinakoz sartu.
Gurasoen habiatik irteteko
eta langile-bizitzan sartzeko aukerak aztertu. Ekiten
diazun bideari ekiten diozula, zure kuadrillako zen-
bait –ekiten dioten bideari ekiten diotela– beti zurea
baino goragoko klase sozial eta ekonomiko batean
egongo direla jakin. Zure irakasle ezkertiar zakildunak
zure irakasle ezkertiar aludunak baino soldata altua-
goa duela eta horren aurrean zirkinik ere egiten ez
duela berretsi. Taberna-zuloan ipurdia ukitu berri di-
zun izaki horri hankartean ostikada bat jo. Bizitza
osoan egindako zaintza eta garbiketa lanak lan, zure

amak sekula erretiro-pentsiorik jasoko ez duela pen-
tsatu. Erditu ondoren lanera itzuli, eta osasuna galdu
zaintza partekatuaren kontu hori guztia benetan gau-
zagarria izateko ahaleginean. Gertatzen zaigun guztia
posizionamendu politiko batetik irakurri.

Errealitate-zerrenda hori urrun dago finitua izate-
tik, eta behin betiko amaiera ez dio ahots, buru eta
ikus puntu anitzetatik datorren mugimendu batek
baino emango. Bide horretan, kosta egiten zait ingu-
ratzen gaituen gizartearen irakurketa horietara iriste-
ko bidea tranpa, iruzur, engainu edo maula gisa iden-
tifikatzea. Aldiz, oso erraz ikusten dut feminismoa eta
despolitizazioa esaldi berean sartzeak bere horretan
sortzen duen oximorona.

Udaberri-hondar honek ekarri du gurera halako ga-
lerna-giro bat. Eta, bat-batean, zenbaiten begietara

Eta, bat-batean, zenbaiten begietara
arinkeria eta hutsaltasun bilakatu da
mendeetan zapalkuntza-eredu guztiak
zalantzan jarri, eta haiek gairatzeko
bideak urratu dituen mugimendu baten
ibilbidea eta zilegitasuna

arinkeria eta hutsaltasun bilakatu da mendeetan za-
palkuntza-eredu guztiak zalantzan jarri, eta haiek
gairatzeko bideak urratu dituen mugimendu baten
ibilbidea eta zilegitasuna. Eta, jakina da enbatak zer
dakarren: haize bortitza, zalapartak, korri egin beha-
rra, begiak pixka bat irekitzeko ezintasuna, eta elkarri
itsatsita zeuden hondar-aleak ikaragarri aldentzea.
Baina, zer da ba galerna, hareatza osoa beraientzat
nahi duten udatarrentzako amarru perfektua ez ba-
da. •